

ESKOLA PUBLIKORAKO ZUZENDARITZA GERENTZIAL ETA ANTIDEMOKRATIKOAREN BIDEAN BESTE PAUSU BAT EMAN DU HEZKUNTZA SAILAK.

Hezkuntza Sailak abian jarri du ikastetxe publikoetako zuzendariak aukeratu eta izendatzeko LOMCEren gogor kritikaturiko sistema autoritarioa. LOMLOEren prozedura parte hartzaileagoa eta demokratikoagoa indarrean hasi baino egun gutxi batzuk lehenago hartu du Jokin Bildarratzen taldeak erabaki hau. Iruzur galanta egingo zaie, beraz, ikastetxeen eta eskola komunitateen barne demokraziari eta parte hartzeari, data eta lege-zirrikitu ilunak baliatuz. Are gehiago, aintzat harturik honen ondorioz izendatutako zuzendarien agintaldia 4 urtekoa izango dela gutxienez: prozesu garrantzitsu honen hasiera aste gutxi batzuk bakarrik atzeratuz gero, baldintzak guttiz bestelakoak izango lirateke, eta Hezkuntza Sailaren jokabidea askoz ere gardenagoa.

Zuzendaritza karguei eskola komunitatearen oneritziak ematen die zilegitasuna. Horregatik, STEILASek Hezkuntza Sailari eskola demokratikoak eraikitzeko bidean LOMCE ez aplikatzea exigitzen dio.

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN HA DADO UN PASO MÁS HACIA LA DIRECCIÓN GERENCIAL Y ANTIDEMOCRÁTICA EN LAS ESCUELAS PÚBLICAS.

El Departamento de Educación ha puesto en marcha un sistema autoritario muy criticado por la LOMCE para elegir y nombrar a los directores y directoras de los centros públicos. El equipo de Jokin Bildarratz ha tomado esta decisión pocos días antes de que entre en vigor el procedimiento más participativo y democrático de la LOMLOE. Se va a cometer, por lo tanto, un fraude a la democracia y a la participación interna de los centros y de las comunidades escolares, oscuros resquicios legales y fechas comprometidas. Más aún, teniendo en cuenta que el nombramiento de los directores y directoras como consecuencia de esto será de al menos 4 años: si el inicio de este importante proceso se retrasase sólo unas pocas semanas, las condiciones serían totalmente distintas y el comportamiento del Departamento de Educación mucho más transparente.

Los cargos directivos de los centros públicos están legitimados por el reconocimiento de la comunidad escolar. Por ello, STEILAS exige al Departamento de Educación que no aplique la LOMCE en la construcción de escuelas democráticas.

Euskal Herrian, 2020ko abenduaren 29an